

UDALAK 2011ko OTSAILAREN 24EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Marian Beitialarrangoitia Lizarralde and.

ALKATEORDEAK:

Idurre Lucas Ezkioga and.
Juan Ignacio Arrieta Egilegor jn.
Usoa Barrutiabengoa Olazabal and.
Unai Erroitzenea Gamio jn.

ZINEGOTZIAK:

Juan Carlos Plazaola Burugain jn.
Izaskun Txintxurreta Ibabe and.
Izaskun Ezeiza Olazabal and.
José Pérez Dominguez jn.
Jose Ramón Chica Ramirez jn.
Estefania Morcillo Cerdan and.
Andoni Amonarraiz Gómez jn.
Jose Antonio Cuesta Sole jn.
Iñaki Arratibel Olaziregi jn.
Iñaki Barrio Sagastume jn.
Beatriz Fernandino Goitia and.
M^º Luz Anglada González and.

2011ko otsailaren 24ean ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Marian Beitialarrangoitia Lizarralde alkate andrearen lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Pello Odriozola Zubizarreta idazkariordea.

KONTU-HARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIORDEA:

Pello Odriozola Zubizarreta jn

1.- AKTA ONARTZEA: 2011-02-02. - 2011ko otsailaren 2an egindako bileraren akta aho batez onartu da.

2.- 2011KO URTARRILAREN 21ETIK 2011KO OTSAILAREN 21ERA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2011ko urtarrilaren 21etik 2011ko otsailaren 21era bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- * Alkate and.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Euskara, Kultura, Turismo eta Presoen delegatu and.
- * Hezkuntza, Politika Soziala eta Hernani 2020ko delegatu and.

3.- HERNANIKO UDALAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ARTEAN SINATUKO DEN HITZARMENA ONARTzea, HERNANIKO BHI ZABALTZEKO ETA HERNANIKO UDALERRIAN BIGARREN HEZKUNTZA BERRANTOLATZEKO. - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Hernaniko Udalerrian prozesu bat jarri du martxan eta, prozesu horren baitan, hainbat alderdi aztertu ondoren, hala nola herriko gizarte-hezkuntzaren errealitate konplexu eta anitza, herriko instalazioak, demografia tasen eta haien proiektzioa, mailen araberako ratioak eta udalerrri honetako familien eskolaratzeko joerak, proposamen hau egin du: Hernanin Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bakarra jartzea. Hori gauzatu ahal izateko, beste eraikin bat eraiki beharra dago, lehendik dauden instalazioak osatze aldera, hau da, Agutin Iturriaga (Hernani BHI) eta Santa Barbara (Langile BHI), eta horretarako epeko programazio bat onartu du.

Kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 15. artikuluan 2. ataleko n letrak dioena eta, bestalde, Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoaren xedapenek diotena (bereziki 16. xedapen gehiagarriaren 4. atala) eta, kontuan hartuta, halaber, hezkuntza proiektu hau gauzatzeko beharrezkoa dela Hernaniko Udalarena den 6.044 m²-ko lursail bat eskuratzea, Sail horrek Udalbatza honengana jo du aipatutako lursailaren doako lagapena gauza dadin eskatzeko.

Bestalde, Hernaniko Udalarenak dira, halaber, bere garaian herri honen hezkuntza beharrei aurre egite aldera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren esku jarritako hainbat finka eta eraikin.

Egoera horretan dago gaur egun Urumea BHIren eraikina (Elkano kalea 7). Eraikin horrek, DBHko ikastetxe batek dituen beharrak kontuan hartuta, hainbat gabezia garrantzitsu bizi ditu eta, gainera, antolamenduz kanpo dago, indarrean dauden hirigintza xedapenen arabera. Horiek horrela, udalbatzarentzat beharrezkoa eta komenigarria da eraikin hori guztiz eskuragarri gerta dadila lortzea, gaur egun indarrean dauden hainbat hirigintza plan eta dokumentuetan eraikin horri dagokionez onartu dituen erabakiak gauzatu ahal izateko.

Honen guztiaren harira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak adierazi du, gaur egun Urumea BHI kokatua dagoen eraikina (Elkano kalea 7) erabiltzen jarraitzea ez dela beharrezkoa izango aipatutako hezkuntza azpiegitura berri horiek egin ondoren eta bigarren hezkuntza osoa benetan eta behin betiko zentro bakarrean kokatu ondoren.

Kontuan hartu behar da zer dioten Konstituzioaren 145. artikuluan 2. atalak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 3. artikuluan 2. atalak eta 4. artikuluan 1. atalaren d letrak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 55. eta 57. artikuluek eta Hezkuntzaren Lege Organikoan jasota datozen xedapen sektorialak, bereziki 8. artikulua eta 16. xedapen gehigarria.

Horiek horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.2.I artikulua eta 47.2.b artikulua ezartzen dutena kontuan hartuta.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2011ko otsailaren 16an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Lehenengoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin hitzarmen bat sinatzea, Udalak Santa Barbara inguruan daukan lursail baten doako lagapena egite aldera. Hona hemen hitzarmenaren klausulak:

LEHENA.- Udalak hitz ematen du Eusko Jaurlaritzari 6.044 m²-ko lursail bat doan lagako diola, Hernani BHI handitzeko beharrezkoa baita. Lagatuko den lursaila zein den Hitzarmen honekin batera doan planoan agertzen da (I. Eranskina).

Udala lagapena gauzatzeko egin beharreko atze-aurre guztiak egiten ari da, eta espedientea ahalik eta lasterren bukatuko duela hitz ematen du.

BIGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bitartez, eraikin berri bat eraikiko du, BHI Agustin Iturriaga eta Santa Barbara eraikinen instalazioak osatzeko eta Hernaniko udalerriko bigarren hezkuntzako ikastetxe bakarra haietan kokatzeko. Eta, bestetik, Urumea ikastetxea handituko du (Gaymur-Larramendi 18), ikastetxe hori bere ikasle guztiei ongi erantzuteko moduan egon dadin, eta, obra horiek egin ondoren, gaur egun Urumea BHI dagoen eraikina (Elkano 7) hustuarazi eta inolako erabilerarik gabe utziko du.

Horiek egin eta martxan jarri ondoren, Autonomia Erkidegoko administrazioak, indarrean dagoen araudian jasota datorren prozedura erabiliz, BHI Urumea eraikina hezkuntza erabileratik desafektatzeko tramitazioari ekin eta Hernaniko Udalari itzuliko dio, hitzarmen honetan espresuki adierazita gelditzen delarik eraikin hori ez dela beharrezkoa hezkuntza zerbitzu publikorako, eta Hernaniko Udalari itzultzeko konpromisoa hartzen duela.

HIRUGARRENA.- Hitzarmen honetan aipatutako zentroyen berrantolaketa egin ondoren eta Hernaniko Udalerraren hezkuntza beharrak aztertu ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak udalerrira osoko hezkuntza beharrei buruzko informazioa emango dio Udalari, eta bi erakundeek artean aztertuko da udalarenak diren eta gaur egun hezkuntzarako erabiltzen diren beste zentro eta lokal batzuk udalari itzuli behar zaizkion ala ez.

Bestalde, gaur egun hezkuntza zentro gisa erabiltzen diren eta bere horretan jarraituko duten eraikinetan obrarik egin behar ote den ere aztertuko da eta, egin behar izanez gero, horiek egiteko epeak-eta jarriko dira.

Bigarrena.- Alkate-lehendakariari erabaki hau bete ahal izateko beharrezkoak diren agiri publiko nahiz pribatuak izenpetzeko eta formalizatzeko ahalmena ematea.

4.- HERNANIKO UDAL PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN TESTU BATEGINARI EGINDAKO ALDAKETEN JENDAURREKO TRAMITEAREN BERRI EMATEA: (CN) FL.07 AREAN ETA (CN) SG.05. ETA (CS) EL.02 SEKTOREETAN. - Prozesu luze eta korapilatsu baten ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2007ko ekainaren 12an egindako bileran, erabaki zuen Hernaniko udal planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuspen proiektuaren zati bat hainbat baldintzarekin onartzea. Horren tramitazioa 1998an hasia zen. Onarpenaren testuak hau zioen azalpen zatian.

Udaleko osoko bilkurak 2010eko uztailaren 14an hasierako onarpena eman zion Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginari eta, horrekin batera, Iraungarritasun Txostenari edo Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Azterlanari, eta jendaurrean ikusgai jartzeko epe bat irekitzea erabaki zuen.

2010eko irailaren 30ean egindako bileran jendaurrean ikusgai egoteko epea luzatzea erabaki zuen, beste berrogeita bost lagunez, hain zuzen.

Jendaurreko erakusketa epe luze hori bukatu ondoren, udalbatzak 2010eko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuran epe horretan aurkeztutako alegazioak ebatzi zituen eta Testu Bategina behin-behingo onartzea erabaki zuen, dokumentuan hainbat aldaketa sartu zituelarik. Horien artean aipatzekoak dira, txosten honi dagokionez, (CN) FL.7 Florida areari eta (CN) SG.05 Sagastialde eta (CS) EL.02 Elizatxo sektoreei dagozkionak. Osoko Bilkuran hartutako erabaki horrek, zehazki hau ebatzi zuen seigarren eta zazpigarren ataletan:

SEIGARRENA. - *Hernaniko udal planeamenduko AASSen Testu Bateginaren izapideak egiten jarraitzea, Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 legeko 90 eta 91 artikuluek diotenaren arabera, eta dokumentua EAEko Lurralde Antolamenduko Batzordeari helaraztea, dagokion txostena egin dezan.*

ZAZPIGARRENA. - *AASSen Testu Bateratua behin betiko onartu ahal izateko (CN) FL.07 Arean eta (CN) SG.05 eta (CS) EL.02 sektoreetan egindako aldaketak jendaurrean erakusgai jartzea.*

Horrela, eta aipatutako eremu zehatzetan egindako aldaketak jendaurrean ikusgai jartze aldera, egin beharreko argitalpenak egin ziren (GAO: 2011-01-10, Noticias de Gipuzkoa: 2010-12-30, Kronika, Diario Vasco eta Berria: 2010-12-29). Emandako epea bukatu delarik, inork ez du jendaurrean ikusgai jarritako gai zehatz hauei buruzko alegaziorik aurkeztu.

Ondorioz, eta 2011ko abenduaren 21eko osoko bilkuran aldaketa horiek dagoeneko behin-behingo onartu zirenez (jendaurrean ikusgai jartzeko epea betetzeko baldintzapean) eta jendaurrean ikusgai jartzeko epea bete denez, orain hau egin beharra dago:

Lehena: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendu Batzordeari (CN) FL.7 areari eta (CN) SG.05 eta (CS) EL.02 sektoreei dagokien jendaurreko informazio epeari buruzko dokumentazioa bidali.

Bigarrena: Udalbatzaren osoko bilkurari aipatutako jendaurreko epea gauzatu dela jakinarazi.

5.- OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ETA TRAFIKO LEGEHAUSTEENGATIKO ISUNAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA. Pertsonaleko Batzordeak 2011ko otsailaren 16an emandako irizpena ikusita, oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eta trafiko legehausteengatiko isunak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketei buruzkoa.

Hau erabaki da aho batez:

1. Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eta trafiko legehausteengatiko isunak arautzen dituen udal ordenantzan honako aldaketak egitea:

Artikuluak	Aldaketak
2	Udal Ordenantzan LARRIA da eta ARINA izan behar du.
7.4	Udal Ordenantzan LARRIA DA eta ARINA izan behar du.
25	Artikulu hau ezabatu beharra dago. Alkoholemiarengatik ibilgailua ibiltzea kautelazko neurria da, ez da arau-haustea. Kautelazko neurri moduan ibilgailua ibilgailua ibilgetutakoan udal ordenantzan dagokion tasa ezartzen da.
56.1	LARRIA eta 4 puntu izan behar du.
57.1A	LARRIA eta 4 puntu izan behar du.
57.C	LARRIA eta 4 puntu izan behar du.
58.1	Artikuluak erreformulatu beharra dago. "Lehentasuna duen ibilgailuari bat-bateko maniobra egitera behartzea" jartzen du eta izan behar du " Behar adinako "

	aurrerapenarekin ez adieraztea elkargune batean bidea emango duela".LARRIA
60.3	Artikulua erreformulatu beharra dago. "Estugunean larrialdi-zerbitzuko ibilgailuari pasatzen ez uztea" jartzen du eta izan behar du "Seinaleztatutako bide zati estu batean lehenengo sartu den beste ibilgailu batek duen lehentasuna ez errespetatzea". LARRIA
71	Artikulua erreformulatu beharra dago. "Ibilgailuak lehentasun seinalerik ez izatea, horretara behartuta egonda jartzen du eta izan behar du "Ibilgailuak lehentasun seinalerik ez erabiltzea, horretara behartuta egonda"
90.1	Udal Ordenantzan ARINA da eta LARRIA izan behar du.
94.F	Udal Ordenantzan ARINA da eta LARRIA izan behar du.
129	Artikula erreformulatu beharra dago. "Istripua edo matxura izanez gero kaltetuei ez laguntzea" jartzen du eta izan behar du "Agintaritzari edo agintaritzaren agentei nortasuna ez adieraztea eta laguntzarik ez ematea, zirkulazio istripu batean zerikusia izanda". LARRIA.
143.1	LARRIA eta 4 puntu izan behar du.

2. Erabakia publiko erakusketa jartzea 30 egunez, edonork erreklamazioak aurkez ahal dezan. Erreklamaziorik egongo ez balitz erabakia automatikoki behin betikoz onartutzat emango da.

6.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK EGITEAGATIK 2011/2012 IKASTURTEAN ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA: "HERNANI" MUSIKA ESKOLA ETA KANTUZ MUSIKA ESKOLA; KULTURA ARLOKO IKASTAROKAK; UDAL EUSKALTEGIA. - Hezkuntza, Kultura eta Euskara batzordeak 2011ko urtarrilaren 25ean eta Hezkuntza, Kultura eta Euskara batzordeak 2011ko otsailaren 8a emandako irizpenak ikusita. Proposamena da ikasturte honetan tarifak %2,8 igotzea.

Kontu-hartzaileak 2011ko otsailaren 16an egindako txosten tekniko-ekonomikoa ikusita,

Ogasun eta Ondare – Kontuetarako Batzorde Bereziak, 2011eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, besteak beste, honako diktamen hau eman zuten:

Esandakoa kontuan hartuta, irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

* Aldeko botoak: 9 (Beitialarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and. eta Fernandino and).

* Kontrako botoak: Bat ere ez.

* Abstentzioak: : 8 (Arratibel jn, Barrio jn, Amonarraiz jn., Cuesta jn, Chica jn., Morcillo and., Pérez jn, eta Anglada and).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1.- Zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik 2011/2012 ikasturtean ordaindu beharreko taseen ordenantza fiskalaren eranskin hauen aldaketa onartzea:

12. CURSOS-CURSILLOS IMPARTIDOS EN BITERI KULTUR ETXEA

CURSO 2011/2012

Para residentes en Hernani

ADULTOS

Octubre/Junio (2 días/semana, total 4 horas)	211,00 €
Octubre/Junio (2 días/semana, total 3 horas)	158,00 €
Octubre /junio (1 día semana, 3 horas)	158,00 €
Octubre/Junio (1 día/semana, 2,5 horas)	132,00 €
Octubre/Junio (1 día/semana, 2 horas)	104,00 €
Octubre/Junio (1 día/semana, 1,5 horas)	77 ,00€
-72 horas	113,00 €
-60 horas	94,00 €
-40 horas	62,00 €
-entre 15 y 30 horas	48,00 €
-menos de 15 horas	26,00 €

INFANTIL (Hasta 14 años)

Oct./Mayo (3 horas/semana)	102,00 €
Oct./Mayo (2 horas/semana)	69,00 €
Oct./Mayo (1,5 horas /semana)	52,00 €
- entre 15 y 30 horas	31,00 €

2.- Los alumnos no residentes en Hernani abonarán los siguientes importes en concepto de matrícula

ADULTOS

Octubre/Junio (2 días/semana, total 4 horas)	275,00 €
Octubre/Junio (2 días/semana, total 3 horas)	209,00 €
Octubre/junio (1 día/ semana, 3 horas)	209,00 €
Octubre/Junio (1 día/semana, 2,5 horas)	174,00 €
Octubre/Junio (1 día/semana, 2 horas)	138,00 €
Octubre/Junio (1 día/semana, 1,5 horas)	101,00 €
-72 horas	145,00 €
-60 horas	123,00 €
-40 horas	83,00 €
-entre 15 y 30 horas	61,00 €
- menos de 15 horas	32,00 €

INFANTIL (Hasta 14 años)

Oct./Mayo (3 horas/semana)	132,00 €
----------------------------	----------

Oct./Mayo (2 horas/semana)	89,00 €
Oct./Mayo (1,5 horas /semana)	68,00 €
- entre 15 y 30 horas	40,00 €

Normas de aplicación de la tarifa

- 1.- El abono de la tarifa se puede realizar de la siguiente forma:
 - un único pago en la cuenta corriente que se facilite a la persona interesada, como requisito previo a la matriculación.
 - o dos pagos siendo
 - a) Pago del 50% del importe total en la cuenta corriente que se le facilite, como requisito previo a la matriculación.
 - b) Cargo 50% restante, a principios del mes de febrero, en la cuenta corriente que debe facilitar la persona interesada en el momento de la matrícula, siguiente a la iniciación del curso.

 - 2.- Una vez iniciado el cursillo, todo el alumnado deberá abonar el importe completo de la matrícula que les corresponda, de conformidad con la matrícula realizada.

 - 3.- Al comienzo de curso la matrícula se devolverá en los siguientes casos:
 - 3.1 En el caso de que durante la primera semana de clase la persona interesada empiece a trabajar, siempre que se avise de tal circunstancia mediante justificante con sello de la empresa a la que se ha incorporado.
 - 3.2 Si se causa baja por enfermedad durante la primera semana de clase, siempre que presente un justificante médico oficial.
 - 3.3 Si en el horario solicitado no se ha completado grupo.

 - 4.- Cuando por una razón justificada (caso de enfermedad y trabajo, por ejemplo) se cause baja con anterioridad al pago de esta segunda parte, no se abonará dicha segunda parte. Para ello, lo solicitará por escrito, antes del 1 de febrero y presentará los justificantes pertinentes.
- En el caso de que ya se haya abonado esta segunda parte, y el Ayuntamiento aprueba los justificantes presentados, se devolverá el importe de esta segunda parte.
- 5.- Caso de que por motivos no imputables a la persona interesada, comience el curso con posterioridad a su inicio, abonará la parte proporcional de matrícula que corresponda.
 - 6.- Beneficios fiscales: se aplicarán los beneficios fiscales establecidos en el artículo 7 de la ordenanza.

Esandakoa kontuan hartuta, irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

* Aldeko botoak: 16 (Beitilarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and., Fernandino and, Arratibel jn, Barrio jn, Amonarraiz jn., Cuesta jn, Chica jn., Morcillo and., Pérez jn).

* Kontrako botoak: Bat ere ez.

* Abstentzioak: : 1 (Anglada and).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

11.- "HERNANI" MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA ETA "KANTUZ" MUSIKA ESKOLA

2011/12 IKASTURTEKO TASAK:

1.- "HERNANI" MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA.

a) Hernanin bizi direnentzat

1. MAILA	
Hastapena + materiala.....	168,95 €
2. MAILA	
Lengoaia + soinu tresna + taldea + materiala.....	366,20 €
Lengoaia + taldea (txalaparta, abesbatza) + materiala.....	211,20 €
Soinu-tresna + taldea + materiala	211,20 €
Taldea (txalaparta, abesbatza) + materiala.....	56,10 €
Hezkuntza musikala + soinu tresna + taldea + materiala.....	278,10 €
3. MAILA	
Soinu-tresna + taldea + materiala.....	217,80 €
Taldea + materiala.....	62,65 €
4. MAILA	
Taldea + materiala.....	62,65 €
OHARRA:	
A) Bigarren soinu-tresna hartuz gero, matrikula kopuruari gehitu behar zaizkio.....	157,60 €
B) Bigarren soinu tresna txalaparta bada, matrikula kopuruari gehitu behar zaizkio.....	42,15 €

b) Hernanitik kanpo bizi direnentzat

1. MAILA	
Hastapena + materiala.....	204,70 €
2. MAILA	
Lengoaia + soinu tresna + taldea + materiala.....	444,95 €
Lengoaia + taldea (txalaparta, abesbatza) + materiala.....	254,70 €
Soinu-tresna + taldea + materiala	254,70 €
Taldea (txalaparta, abesbatza) + materiala.....	64,60 €
Hezkuntza musikala + soinu tresna + taldea + materiala.....	288,65 €
3. MAILA	
Soinu-tresna + taldea + materiala.....	262,60 €
Taldea + materiala.....	72,40 €
4. MAILA	
Taldea + materiala.....	72,40 €
OHARRA:	

- A) Bigarren soinu-tresna hartuz gero, matrikula kopuruari gehitu behar zaizkio..... 190,20 €
 B) Bigarren soinu tresna txalaparta bada, matrikula kopuruari gehitu behar zaizkio..... 50,60 €

2.- KANTUZ MUSIKA ESKOLA

- Hernanin bizi direnak..... 217,70 €
 Hernanin bizi ez direnak..... 262,60 €

3.- Onura fiskalak: Tasaren Ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.

4.- Tarifa aplikatzeko arauak baliagarriak izango dira onartzen diren tarifa guztientzat, hau da, "Hernani" Musika Eskola Publikoan eta "Kantuz" Musika Eskolan.

Tarifa ezartzeko arauak:

1. Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %50 interesatuak esaten duen kontu korrontetik hartuko zaio, matrikula egin aurretik.
- Beste %50 kontu korrante beretik, urtarilaren hasieran.

2. Ikasturtean zehar, ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien prezio osoa ordaindu beharko dute.

3.- Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko. Hala ere, klasera ez agertzeko ezinbesteko arrazoiak daudenean eta arrazoi horiek behar bezala egiaztatuz gero, Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetaarako Batzorde Bereziak, aurkeztutako egiaztagiria aztertu ahal izango ditu eta, behar izanez gero matrikula baliogabetu edo itzuli egingo da.

4.- Hasitako ikasturtearen lehen hiruhilabetekoan matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko da ordaindu beharreko prezioa.

13.- UDAL EUSKALTEGIA

AURREZ AURREKO IKASTAROAK ETA AUTO-IKASKUNTZA

a) Hauek izango dira 2011/2012 ikasturtean aplikatuko diren tarifak:

- Ikastaldi osoak, 2011ko irailtik/urritik 2012ko ekainera arte astelehenetik ostegunera, bi ordu eta erdi egunean, 446,15 €.
- Ikastaldi osoak, 2011ko irailtik/urritik 2012ko ekainera arte, astean 6 ordu: 267,59.- €.
- Auto-ikaskuntza ikastaldi osoak, 2011ko iraila/urritik 2012ko ekainera arte: 446,15 € .

Beste modulu guztietako kostua 1,40 €/orduko izango da (ikasmateriala eta HABE aldizkariaren harpidetza barne).

b) Ikasturtea bigarren edo hirugarren hiruhilabetekoan hasten dutenek, epe horri dagokion diru kopurua ordainduko dute.

c) Tarifa aplikatzeko arauak:

- Matrikularen ordainketa honela egingo da:

1. Matrikula egiteko momentuan 30 € ordainduko dira.
2. Klaseko lehenengo astean %50 osatzeko falta den kantitatea sartuko da horretarako ezartzen den kontu korrontean.
3. Ikastaldia hasi eta bi hilabeteko epean gelditzen den beste %50 sartuko da kontu horretan bertan.

Bigarren zati hau ordaindu aurretik eta pisuzko arrazoi batengatik (gaixotasuna edota lana, esaterako) baja izanez gero, ez da 2. zatia ordainaraziko. Horretarako, ikasleak idatziz adierazi eta beharrezkoak diren egiaztagiriak aurkeztu behar ditu. Baldin eta matrikula osorik ordaindu badu, eta aurkeztu duen dokumentazioa Udalak ontzat hartzen badu, itzuli egingo zaio 2. zatiari dagokion kopurua.

- Ikasturte hasieran matrikula honako kasu hauetan itzuliko da:

1. Ikasleren bat lehendabiziko astean lanean hasten bada, baldin eta lanean hasi den enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badu (enpresaren zigilua beharrezkoa da).
2. Lehendabiziko astean ikasleak, gaixotasunen bat dela eta, baja ematen badu, aurreko puntuan egindako salbuespen bera egingo da, baina medikuaren egiaztagiri ofiziala aurkeztu beharko du.
3. Euskaltegiaren funtzionamendutik eratorritako kasuak direla medio, bi kasu hauetan:
 - Ikasleak nahi duen ordutegian talderik osatu ez bada eta beste ordutegi batean ezin badu.
 - Ikaslea maila batean hasi ondoren, beste maila batean egotea komeni zaiola konturatu bagara, eta ordutegi horretan dagokion mailako talderik ez badauka edota beste aukerak baztertzen baditu, ordaindutakoa itzuli egingo zaio.

XEDE BEREZIETARAKO ON-LINE IKASTARO MISTOA

Osasun arloko profesionalentzako ikastaro mistoa..

Bi osagai izango ditu ikastaro honek:

1. Sarean egitekoa, 25 ordukoa. Ondoko hauek dira tasak, taldeko ikasle kopuruaren arabera:

Ikasle kopurua	Tasa ikasleko
8-16 ikasle	292,57 €

4-7 ikasle	366,49 €
2-3 ikasle	561,10 €
1 ikasle	1.208,52 €

2. Aurrez aurrekoa:

2.1 2 orduko 6 saio, 12 ordu: 851,70 € taldeko.

2.2 5 orduko 6 saio, 30 ordu: 2.175,45€ taldeko

2.- Aurreko erabakia jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, izan ditzakeen erreklamazio eta oharrak jasotzeko.

3.- Hartutako erabakia behin betikoa izango da, erabaki berri bat hartu beharrik gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igaro eta inolako erreklamazio eta oharrik egin ez baldin bada.

4.- Alkateari tributuak arautzen dituen erabakiaren eta ordenantzen testuak bategiteko ahalmena ematea, Udalak onartutako aldaketa guztiak sartuta

8.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZAREN 5 ARTIKULUA ETA HIRIGINTZA BAIMENAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAREN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA. - Kontu-hartzailetzako teknikariak 2011ko otsailaren 11an egindako txosten juridikoa ikusita,

Alkateak 2011ko otsailaren 17ko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantzen 5 artikulua eta Hirigintza baimenak emateagatik ordaindu beharreko tasaren Ordenantza fiskalak aldatzeko aurkeztutako proposamena ikusita

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantzen 5 artikuluen aldaketa eta Hirigintza baimenak emateagatik ordaindu beharreko tasaren Ordenantzen aldaketa onartzea:

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA:

5. Artikulua: ONURA FISKALAK

1. Zerga honen pean ez dira egongo Udal honi dagokion titularitate dominikaleko higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, obraren jabe izateko baldintza Udalak betetzen badu.

2. Salbuesirik dago Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren ordainketatik, Estatuak, Komunitate Autonomoak, Lurralde Historikoak edo Udalerriak jabe diren edozein eraikuntza, instalazio eta obren egiterik dagokionean, eta zuzenki errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko, hiri saneamendu eta ur beltzen bideratzeari buruz doazenak, nahiz eta beraien gestioa Organismo Autonomoek burutu, nola inbertsio berriko obrak izan ala kontserbatze mailakoak.

3. Salbuespenak: Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren ordainketatik salbuesita egongo dira ondorengo obrak:

- 3.1. Hernaniko Udala barruan dagoen Mankominitateak eta Udalerri-Taldeak jabe diren edozein eraikuntza, instalazio eta obren egiterik dagokionean
 - 3.2. Kontutan bereziki hartuak izango dira eta, hortaz, zerga ordaintzetik salbuetsita gera daitezke ezbehar batek eragindako eraikuntzen birgaikuntza edo berreraikuntza lanak, subjektu pasiboak aldez aurretik eskakizuna behar bezala justifikaturik aurkezten badu eta Ekonomia, Hazienda eta Ondare Batzordeak aldeko diktamena igortzen badu
 - 3.3. Gizarte etxebizitzak eraikitzeko obrak, baldin eta etxebizitzaren prezioa, gehienez, behin-behineko kalifikazio garaian indarrean dagoen moduko haztatu erabilgarria 1.1eko koefizienteaz biderkatuak lortzen den emaitza baino handiagoa ez denean
 - 3.4. Eusko Jaurlaritzak Herri ikastetxeetan egin beharreko obrak, beti ere obra bukatu ondoren Udalari eraikinaren mantenamendua badagokio
 - 3.5. Jabekideen elkarteek agindako obrak, betiere jabari publikotik jendea bizi den lekuetara joateko traba arkitektonikoak igogailu baten bidez, edota gurpil-aulkia beharrezkoa dutenentzat jasotzaile baten bidez, kentzearen emango diren diru laguntzak
4. Hobariak:
- 4.1. Eusko Jaurlaritzaren Berregokitze Babesturiko Egitasmoen barruan dauden etxebizitza edota lokaletan egiten diren obrek %90eko hobaria izango dute kuotarekiko. Hobari hori zergaren behin betiko kitapenean aplikatuko da. Horretarako, hobari-eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira: Eusko Jaurlaritzak obra babestu gisa deklaraturako obra bukaeraren ziurtapenari buruz emandako ebazpena eta lanen azken aurrekontua. Hobaria eskatzeko hilabeteko epea dago, Eusko Jaurlaritzaren ebazpen hori jakinarazten denetik aurrera
 - 4.2. Zergaren zenbatekoan 100eko 90eko hobaria izango dute, industri eta enplegu sustapenerako zedea duten Elkarte Publikoek egindako eraikuntza, instalazio eta obrek
 - 4.3. Zergaren kuotan 100eko 75eko hobaria izango dute Birgaikuntza Integratuko Arearen barruan dauden hirigune zaharreen kokaturik dauden etxebizitzetako eraikinetan burutzen diren obrek, haien xedea lehendik dauden eraikuntzen artapena, birgaikuntza, hobekuntza edo berrikuntza denean. Obra horien barruan sartuzat joko dira barrualdeko edo kanpoaldeko amaierak, zerbitzuen instalazioak eta sareak, hormak eta barruko banaketa, fatxadak eta itxiturak, barruko edo kanpoko arotzi, estalkiak, iragazkaizteak eta isolamenduak, alde batzuen konponketak eta egiturak sendotzea.
- Ez dira aurreko kasuetan sartuzat joko ondoko jarduerak hauek:
- Planta berriko eraikuntzak, lehendik dauden eraikinekiko bananduak nahiz erantsiak izan.
 - Lehendik dagoen eraikuntza baten barrua hustu edo zati batez edo osorik ordezkatu beharra dagoenean.
 - Lehendik dagoen eraikinaren eraikuntza-aprobetxamendua gehitzea eragiten dutenean (azalera eraikia edo bolumena).
 - Lehendik dagoen eraikinean etxebizitza kopurua gehitzea eragiten duenean.

- Lehendik beste erabilera zuten lokalei edo guneei etxebizitza, industria edo merkataritza (hirugarren sektoreko) erabilera emateko xedea dutenean
- 4.4. Eraikuntzek, instalazioek edo obrek **100eko 95era arteko** hobaria izango dute, interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean arrazoi sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.
 - 4.5. Autokontsumorako energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak erabiltzen dituztenek 100eko 95eko hobaria izango dut. (eguzkia energia, haize energia, eta abar). Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea. Eta, era berean, ingurumenaren onurarako egin direnak, hobi septikoen gisakoak, eta abarHobari hori ondorengo balizko egoeran baino ez da aplikatuko: dagokion araudiak aipatutako sistemak instalatzea eskatzen ez duenean.

Era berean, hobaria ondorengoetan baino ez da aplikatuko: energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak (eguzkia energia, haize energia, eta abar) gehitzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrarako diru-partidari dagokion kuota zatiaren gainean edo, hala badagokio, ingurumena hobetzeko helburuarekin burutzen diren obren kostuaren gainean; hala nola, voy septikoak.

Hobari hau aplikagarria izateko, interesdunak exekuzioaren kostu materiala ekarri beharko du, baina kostu horretan hobaria aplikatu beharreko partiden zehatzak azaldu beharko dira. Kostua partiden xehetasunarekin ekarri ezean, ez da hobaririk aplikatuko
 - 4.6. Zerga-kuotaren %90eko hobaria jaso ahal izango dute mugikortasun arazoak dutenen sarbide eta bizigaritasun baldintzak hobetzen dituzten obrek. Hobari hori soilik izango dute administrazio publikoek sustatutako obrek, zuzenean nahiz hitzartutako sustapen bidez.
 5. Gerta daiteke hobariren bat baino gehiago jasotzeko eskubidea aldi berean izatea. Horrela gertatzen denean, zergadunarentzat onuragarriena dena aplikatuko da
 6. Aurreko idatz zatian arautuetako hobari fiskalen onuradun izan ahal izateko ezin da udal ogasunean zorrik izan. Espediente bakar batean pertsona bat baino gehiago baldin badago inplikaturik eta horietakoren batek udal ogasunean zorrik baldin badu, hobari fiskala kalkulatzera zordunari dagokin ehunekoa deskontatuko da. Aldez aurretik interesatu guztiei 10 eguneko entzunaldia emango zaie. Epe horretan, dauden zorren espedientea ebatzi beharko da.
 7. Orokorrean, onura fiskal guztiak espreski eta idatziz eskatu behar dira. Horrela, interesatuek eskaera egin beharko dute eraikitze baimena jakinarazten zaion ondorengo 2 hileko epean, betiere eskatutako onura fiskalak ezbadu epe zehatza. Eskaerarekin batera, alegatutako onura fiskala emateko zioaren frogagiria eman behar da.

ZERBITZUAK ESKAINI ETA JARDUERAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAREN ORDENATZA, 2. ERANSKINA: HIRIGINTZA BAIMENA EMATEAGATIKO TASA

Onura Fiskalen apartatua:

1. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango udalerriko etxeetan gas sareri lotzeko egiten diren lanetarako baimenek, salbu eta berritik eraikitzen diren etxeetan egiten direnek.

2. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango Hernaniko Udala barruan dagoen Mankominitateak eta Udalerri-Taldeak jabe diren edozein eraikuntza, instalazio eta obren egiterik dagokionean
 3. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango Eusko Jaurlaritzak Herri ikastetxeetan egin beharreko obrek, beti ere obra bukatu ondoren Udalarari eraikinaren mantenamendua badagokio.
 4. Kontutan bereziki hartuak izango dira eta, hortaz, tasa ordaintzetik salbuetsita gera daitezke ezbehar batek eragindako eraikuntzen birgaikuntza edo berreraikuntza lanak, subjektu pasiboak aldeztatik eskakizuna behar bezala justifikaturik aurkezten badu eta Ekonomia, Hazienda eta Ondare Batzordeak aldeko diktamena igortzen badu
 5. Tasaren 100eko 90eko hoberia izango dute:
 1. babes ofizialeko etxeak eraikitzeko obra baimenek.
 2. Eusko Jaurlaritzan dauden Berregokitze Babesturiko egitasmoen barruan dauden etxebizitza edota lokalek %90aren bonifikazioa izango dute ordaindu behar den kuotan
 3. Jabekideen elkarteek agindako obrek, betiere jabari publikotik jendea bizi den lekuetara joateko traba arkitektonikoak igogailu baten bidez, edota gurgil-aulkia beharrezkoa dutenentzat jasotzaile baten bidez, kentzearen emango diren diru laguntzak
 4. interes bereziko obrek edo udal onurakoak izendatuta daudenean arrazoi sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.
 6. Aurreko idatz zatian arautuetako hobari fiskalen onuradun izan ahal izateko ezin da udal ogasunean zorrik izan. Espediente bakar batean pertsona bat baino gehiago baldin badago inplikaturik eta horietakoren batek udal ogasunean zorrik baldin badu, hobari fiskala kalkulatzekoan zordunari dagokin ehuneko deskontatuko da. Aldez aurretik interesatu guztiei 10 eguneko entzunaldia emango zaie. Epe horretan, dauden zorren espedientea ebatzi beharko da
 7. Orokorrean, onura fiskal guztiak espreski eta idatziz eskatu behar dira. Horrela, interesatuek eskaera egin beharko dute eraikitzeko baimena jakinarazten zaion ondorengo 2 hileko epean, betiere eskatutako onura fiskalak ezbadu epe zehatza. Eskaerarekin batera, alegatutako onura fiskala emateko zioaren frogagiria eman behar da
- 2.- Aurreko erabakia jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, izan ditzakeen erreklamazio eta oharra jasotzeko.
 - 3.- Hartutako erabakia behin betikoa izango da, erabaki berri bat hartu beharrik gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igaro eta inolako erreklamazio eta oharrik egin ez baldin bada.
 - 4.- Alkateari tributuak arautzen dituen erabakiaren eta ordenantzen testuak bategiteko ahalmena ematea, Udalak onartutako aldaketa guztiak sartuta

9.- LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEEK (LAB) JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAN (996/2010 ZK.) AGERTZEA ETA LETRATUA IZENDATZEA. - - Langile Abertzaleen Batzordeek (LAB) administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri du (996/2010 zk.)

Beatriz Fernandino: Udaltzari eskatzen diot ez dezala Zapateroren dekretua aintzat hartu. Edozein abokaturen kontra bozkatuko dut, nahi dudana da ordain dakiela eta ez dakiela kendu, ez dut inoren alde bozkatuko.

Esandakoa kontuan hartuta, irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- * Aldeko botoak: 8 (Beitialarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn. eta Barrutiabengoa and. eta).
- * Kontrako botoak: 5 Fernandino and, Arratibel jn, Barrio jn, Amonarraiz jn., Cuesta jn.,
- * Abstentzioak: : 4 (Chica jn., Morcillo and., Pérez jn, eta Anglada and).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Alkate-lehendakariak proposatu du Oskar Padura Unanue letratua izendatzea Udala ordezkari eta defenda dezan.

10.- ALKATETZAK 2011KO OTSAILAREN 8AN EMANDAKO EBAZPENA BERRESTEA. EBAZPEN HORI 13/2011 ZENBAKIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAN AGERTZEARI ETA LETRATUA IZENDATZEARI BURUZKOA DA.

DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamaikako otsailaren zortzian.

Construcciones y Rehabilitaciones Tecnolur, SL-k eta José Francisco Gude Garciak auzi errekurtsua jarri dute Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian. Errekurtsu hori Hernaniko Udalak osoko bilkuran 2007-04-3an hartutako erabakiaren aurkakoa da, zeinen bidez herri bideen inbentarioa behin betiko onartu zen.

Horiek horrela, eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

- 1.- 13/2011 zenbakidun Administrazioarekiko Auzi-Erekurtsua dela eta (20.05.3-11/000035 IZO) administrazioarekiko auzi Epaitegian azaltzea, demandatu gisa, eta Oscar Padura Unanue letratu jauna izendatzea errekurtsu horretan Hernaniko Udalaren interesak ordezkatu eta defendatzeko, horretarako prokuradoreen alde emanda dagoen ahalmen oro erabiliz.
- 2.- Ebazpen hau hurrengo Osoko Bilkuran berrestea.

Marian Beitialarrangotia Lizarralde alkate andreak agindu eta sinatu du eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.”

Esandakoa kontuan hartuta, irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- * Aldeko botoak: 15 (Beitialarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and.,Fernandino and, Chica jn., Morcillo and,, Pérez jn, Amonarraiz jn., Cuesta jn., eta Anglada and).
- * Kontrako botoak: Bat ere ez.
- * Abstentzioak: 2 (Arratibel jn eta Barrio jn).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, ebazpen hau berrestea erabaki da.

11.- KIROLDEGIKO ESTALKIA ALDATZEKO OBREN 1.FASEARREN LIKIDAZIOA. –

Aztertu dira Hernaniko Udal Kirol Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak 2008ko uztailaren 28an egindako bileran hartutako erabakiak. Erabaki horiek Kiroldegiko estalkia aldatzeko obren 1. fasearen likidazioari buruzkoak dira.

Andoni Amonarraiz: Egin zitzaigun proposamenaren alde bozkatu nuen batzordean, eta Oscarrek azalpen bat eman zigun, baina gertatzen zaidana da ni gaizki nagoela, ondo iduritzen zait abokatuak dioena, baina politikoki bozkatu behar dudanez eta uste dudanez ezin dela hortik besterik gabe aterata, beste kasu batean bezala, botoa aldatu egingo dugu, eta, beraz, kontra bozkatuko dugu.

José Ramón Chica: Batzordean abstenitu egin ginen, gutxi gorabehera Andonik esandako arrazoiengatik. Kontrako botoa emango dugu.

Aurkeztutako proposamena bozkatu da, eta emaitza hauek lortu dira:

- * Aldeko botoak: 9 (Beitialarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and.,Fernandino and, ,).
- * Kontrako botoak: 5 (.Chica jn., Morcillo and,, Pérez jn, Amonarraiz jn., Cuesta jn.)
- * Abstentzioak: 3 (Arratibel jn eta Barrio jn eta Anglada and).

Beatriz Fernandino: Aldeko botoa ematearen azalpena eman nahi dut. Arazo hau aspalditik datorren arazoa dugu, eta bada kitatzeko garaia, batik bat Hernaniko bizilagun asko daudelako kalteturik.

Udalbatzak **“UTE LATSUNBE”** aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztutako alegazioen **PARTE BAT** onartu du eta, auzi luze eta garesti bat saihesteko asmoz eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 105. artikularekin bat etorriz, aipatutako enpresa-elkartearekin hauxe adostu du:

1.- Baliogabetzea Udal Kirol Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak 2008ko uztailaren 28an egindako bileran aho batez hartutako Erabakiaren bigarren, hirugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren erabakiak.

Horiek horrela, baliorik eta ondoriorik gabe utzi da 2. erabakia:

“2.- “UTE LATSUNBE” enpresari 207.526,46 euroko diru-zigorra jartzea kontratua burutzeko epean 206 egun atzeratzeagatik, enpresari egotz dakioken arrazoiengatik, eta kontzeptu horrengatik, dagoeneko onartutako 8. eta 9. ziurtapenen kopuruak erretenitzea eta bere garaiari obrak behar bezala egingo zirela bermatze aldera behin betiko berme gisa jarritako banku abala exekutatzea

(443486 zk. Banco Guipuzcoano), egiaztagirietan zehaztutako zenbatekotik gora egiten badu zigorra ordaintzeko.

”

Era berean, baliorik eta ondorioz gabe utzi da 3. erabakia:

“3º U.T.E. LATSUNBE” enpresari jarraian zehazten diren diru-kopuruak exijitzea, kontratua gauzatu bitartean kontratistaren zabarkeriagatik izandako kalte-galeren kalte-ordain gisa:

a) Kiroldegiko instalakuntzetan izandako kalteak konpontzeko gastuak, 34.232,58 euro (BEZ barne), jarraian zehazten den moduan:

-Estudio DEI S.L. f.261/07: 27.173,00 €

-Estudio DEI S.L. f.275/07: 2.982,52 €

-Estudio DEI S.L. f.276/07: 4.77,06 €

b) Kontratistaren erruz obrak atzeratzeagatik sortutako galerek eragindako gastuak, 53.810,97 euro, jarraian zehazten diren kopuruetatik ondorioztatzen denez:

Pilotalekuaren alokairua: 22.081,30 €

Egin gabeko ikastaroak: 31.396,40 €

Abuztuko garbiketa: 333,27 €

c) Obrak atzeratzearen ondorioz lanen zuzendaritzari eta segurtasun eta osasun arloko koordinazioari dagozkion zerbitzu sarien igoeraren gastuak erreklamatzeko: 30.933,26 euro (BEZ barne), behean adierazten den kopuruaren arabera:

- Grande Ingenieros f110/08 : 30.933,26 €

Diru kopuru hori bere garaian behin betiko berme gisa gordetako banku abaletik kobratuko da. eta aipatutako bermetik gorako diru kopurua premiamendu prozeduraren bidez.

Era berean, baliorik eta ondorioz gabe utzi da 5. erabakia::

5.- “UTE LATSUNBE”ri 30.273,11 euroko diru zigorra jartzea (kontrataren aurrekontuaren %5), laneko arriskuei aurre hartzeko neurriak bete ez dituelako, “Laneko arriskuen prebentzioari buruzko enpresentzako baldintza-orriak, lehiaketa, enkante edo prozedura negoziatu bidezko obra eta zerbitzuen kontratuatarako” izeneko agirian ezarritakoaren arabera. Kontratuaren zati bat da 2007ko ekainaren 8an udal arkitekto teknikoak egindako proposamenaren arabera, Udaltzaingoa kiroldegiko estalkian beharrezko segurtasun neurririk gabe lanean ari ziren langileen lanei buruz ekainaren 8an egindako salaketan oinarrituta.

Era berean, baliorik eta ondorioz gabe utzi da 6. erabakia::

6.- “UTE LATSUNBE”ri zabarkeriaz jokatzearen ondorioz garajeetan eta klubetako bulegoetan gertatutako kalteak konpon ditzala eskatzea. Obra zuzendaritzak kalte horiek 113.960,11 eurotan (BEZ barne) baloratu ditu. Kalteak konpontzeko 30 egun naturaleko epea ematen zaio enpresa elkarteari. Egin beharreko konponketa lanak egiten ez baditu, bidezko jotzen diren administrazio neurriak eta neurri judizialak hartuko dira.

Era berean, baliorik eta ondorioz gabe utzi da 7. erabakia::

7.- “UTE LATSUNBE” enpresari eskatzea jarraian agertzen direnei bertan zehaztutako diru-kopurua ordaintzeko, obrak atzeratzeak sortu dituen galerak ordaintzeko:

- CDH Pilota saila 5.792,50€

- “BPXPORT” enpresa 11.301,30€

2.- "UTE LATSUNBE" aldi baterako enpresa-elkartearen eskaera onartzea, baina soilik **110.000 euro (EHUN ETA HAMAR MILA EURO)**. Kopuru hori 60 eguneko epean ordainduko zaio enpresa-elkarteari, bere egunean udal kiroldegiko estalkia aldatzeko "U.T.E Latsunbe" enpresari enkargatutako lanen behin betiko kitapen moduan.

Gastu hori Hernaniko Udalaren partida hauen kontura izango da:

- **1.1400.622.01.452.20.2007 "Kirolddegiko eraikina" Baimenduak A-101-2007: 52.375,19 euro; A-292-2007: 11.600,00 euro eta A-154-2009: 36.093,12 euro**
- 1.0500.211.01.452.20.2011 "Kirolddegiko eraikinaren mantentze-lanak": 9.931,69 euro

3.- "U.T.E. LATSUNBE" enpresa-elkarteari eskatzea Elkano kalean dauden garajeak konpontzeko ondorengo lanak egiteko BOST HILABETEKO EPEAN, obra egiteko lekua duenetik kontaktzen hasita: Elkano kaleko garajeetako zoladura konpontzeko lanak. Horretarako, hauxe egin beharko da:

- a) Euskarriaren tratamendu mekanikoa dianobaketa eta/edo fresaketa bidez. Horrela, poroa erabat ireki eta erretxinen sistema berriaren ainguraketa bermatuko da.
- b) Hondakinak kendu, ekortu eta xurgatu. Horrez gain, hondakinak edukiontzietan sartu eta zabortegira eramango dira.
- c) Barruko zoladuraren estaldura erdi-zimurtsua izango da. Horretarako, epoxi erretxina eta silizezko agregakinak erabiliko dira, 04-09 inguruko granulometria dutenak. Akaberarako, berriz, erresistentzia mekaniko eta kimiko handia duen poliuretanozko erretxina erabiliko da.
- d) Sabaietan eta zutabeetan pintura plastikoa erabiliko da eta bi esku eman beharko dira. Horrez gain, altxatu handiak saneatu, orbanak garbitu eta, besteak beste, fluoreszenteak, larrialdi-seinaleak, suteen aurkako altzariak babestu beharko dira.
- e) Aukeratutako pintura plastikoa 0,80 metroko zokaloan, zutabeak barne.
- f) Aukeratutako pintura plastikoa 0,20 metroko bandan, zutabeak barne.
- g) Energia elektrikoaren eta uraren hornidura jabeen kontura izango da.
- h) Latsunbe aldi baterako enpresa-elkarteari ez du bere gain hartuko instalazioen egungo egoera (saneamendua, iturgintza, elektrizitatea...). Hori dela-eta, lanak hasi aurretik, erreportaje fotografiko eta bideografiko bat egingo du jabeekin batera, instalazioen, fluoreszenteen, ateen eta suteen aurka babesteko instalazioen egungo egoera jasotzeko.
- i) Latsunbe aldi baterako enpresa-elkarteari ez ditu bere gain hartuko, hormigoizoladuren berezko mugimenduen edo bermatze-oinarriaren azpiko asentatzeen ondorioz zoladuran sor daitezkeen pitzadurak edo arrailak.

4º.- Banco Guipuzcoano bankuaren **443486. ABALA** itzultzea "UTE LATSUNBE" enpresa-elkarteari.

5º.- Nolanahi ere, UTE LATSUNBE enpresari dagokion organoak ere onartu beharko du hartutako erabakia. Baldintza hori bete ondoren, bi alderdiek espresuki egingo diete uko aipatutako lanen inguruan edozein jurisdikzio-ordenaren aurrean has ditzaketen akzio legalei.

12.- MOZIOA: DATOZEN HAUTESKUNDEETAN EREÑOTZUKO AUZO BATZARRA AUKERATZEARI BURUZ. -
Ikusirik MOZIOA: DATOZEN HAUTESKUNDEETAN EREÑOTZUKO AUZO BATZARRA AUKERATZEARI BURUZ

Esandakoa kontuan hartuta, irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

* Aldeko botoak: 13 (Beitilarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and., Fernandino and, Amonarraiz jn., Cuesta jn, Arratibel jn eta Barrio jn.).

* Kontrako botoak: Bat ere ez.

* Abstentzioak: 4 (Chica jn., Morcillo and., Pérez jn, eta Anglada and).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Ereñotzuko Auzo Udala eratu delarik, eta entitate horretan datozen hauteskundeetarako indarrean egongo den arauduari dagokionez, Ereñotzuko ordezkariak Hernani 2020 batzordearen hainbat bileratan aditzera eman dute hauteskundeetako araudiak hutsuenak dituela.

Hutsune horiek batzordean aurkeztutako txosten juridiko zehatz baten bidez dokumentatu dira. Hauek dira, labur-labur, txostenean jasotako hutsuneak:

“...Goian aipatutako hauteskunde marko honek arazo handiak sor ditzake auzo udaletan, zehazki Ereñotzuko Auzo-Batzarra aukeratzekoan. Ereñotzuko biztanleek ez dituzte batzarkideak zuzenean aukeratzeko, baizik eta haien izendapena beste batzuk egiten dute, honela:

- a) Batzarkideen izendapena alderdi politiko eta hauteskundeetarako federazio, koalizio edota elkarteek egiten dute, eta aukeraketa ez da egiten hautesleek alde aurretik ezagutzen duten zerrenda batetik.
- b) Alderdi politiko eta hauteskundeetarako federazio, koalizio edota elkarteak asgnazio horiek egiteko ez dira kontuan hartzen Ereñotzuko auzo-alkatea aukeratzeko emaitzak, baizik eta Hernaniko Udaleko zinegotziak aukeratzekoak.

Horiek ikusita, Ereñotzuko ordezkariak, aipatutako txosten juridikoan oinarrituta, hutsune horiek lege esparruaren barruan gainditzeko hainbat alternatiba planteatzen dituzte. Egoera horren aurrean, dagoen arazoa ikusita eta planteatutako alternatibak ikusita, udal honek hau erabakitzen du:

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea gaur egungo araudiaren ondoriozko disfuntzionaltasunak gainditzeko egin beharreko lege-aldaketak egin ditzala. Ulertzen dugu horixe dela egoera hau konpontzeko bide nagusia eta aproposena.
2. Legegintzaldiaren bukaeran gaudela badakigunez, eta aurreko puntuan aipatutako lege aldaketa egiteko prozedura beharko litzatekeen epean egiterik egongo ez denez, gaia aldi batez konpontzeko aukera gisa, hemen bildutako ordezkari politikoek hitz ematen dugu alderdi politiko bakoitzari dagokion Auzo-Batzarreko kideen izendapena Ereñotzuko herritarrek proposatutakoaren arabera egingo dela, hau da, Auzo Batzarrerako kideak Ereñotzuko boto-kutxaren emaitzen arabera lortzen dituzten alderdiek:

- a) Izenda ditzatela batzarreko kide Auzo-alkatea aukeratzeko aurkeztutako taldeak edo taldeek proposatutako izangaiak, Auzo-alkatea aukeratzeko emaitzen arabera.
- b) Ordezkariek ez dezatela Auzo-batzarrerako kide bakar bat ere izendatu.

13.- ERRETIRO ADINA 67 URTE ARTE GEHITZEA ERREFUSATZEKO EZKER BATUA-BERDEAK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Ezker Batua-Berdeak Udal Taldeak, idatzi honen bidez, Udalbatzari aurkeztu nahi dio ondorengo mozioa:

ERRETIROA HARTZEKO ADINA 67 URTERA LUZATZEAREN AURKAKO MOZIOA

Espainiako Gobernuak pentsio-sistema aldatzeko proiektu bat onartu du. Atzerapauso handia izateaz gain, oso kaltegarria da langileentzat, izan ere, 67 urte izan arte ezin dute erretiroa hartu, baldin eta 38'5 urte kotizatu ez baldin badituzte. Horrez gain, kotizazioak kalkulatzeko epea luzatu da, 15 urtetik 25 urtera.

Murrizketa horrek, urte honetarako pentsioak bere horretan mantentzearekin batera, langileen eskubideak urratzen ditu, eta eskuin politikoari eta ekonomikoari amore ematea da. Bestalde, ez du ekarpen jakinik eta errealik egiten krisi ekonomikoak eragindako langabe-kopuru ikaragarriaren arazoa gainditzeko. Arazoa langabezia da, ez pentsiodunen kopurua gehitzea. Sistema publikoaren finantziazioaren bideragarritasuna pentsionista kopuruaren menpe dago, baina baita kotizatzen dutenen eta zergadunen kopuruaren menpe eta kotizazioen eta kontribuzioen tamainaren menpe ere.

Onartutako proposamena erregresiboa da, baldintza berri horien baitan dauden langileek erretiroa hartzeko eskubidearen bi urte galtzen dituztelako. Geroz eta gazte gehiago daude langabezia eta geroz eta beranduago hasten dira lanean. Ondorioz, geroz eta zailagoa izango da eskatutako 38'5 urteak kotizatzea. Horrez gain, pentsioa kalkulatzeko erabiliko den kotizazio-epea 25 urtera arte luzatzeak batez besteko pentsioak gutxitzea ekarriko du. 2009an 741'6 eurokoak izan ziren batez besteko pentsio horiek, europar batez bestekotik urrun.

Azkenik, proposamen alferrikakoa eta okerra da, hogeita hamar urtera egindako demografia eta gastu aurreikuspenean oinarritzen delako eta ez dituelako kontua hartzen produktibitatearen gehitzea eta sistema finantziarioari egindako ekarpen publikoak, esaterako.

Erakunde finantzarioen eragiketa espekulatiboek mundu mailan eragin duten krisiaren erdian merkatuek Espainiako Gobernuari ezarritako proposamenak ahuldu nahi du pentsioen sistema publikoa, krisia eragin duten bankuek kudeatzen dituzten pentsioen sistema pribatuen mesederako.

Krisi honetatik ateratzeko politika progresista bat behar dugu. Horretarako, baliabide publikoak handitzeko eredu fiskala aldatu behar da, baliabide gehien dituztenek gehiago ordaintzeko, eta eskubide sozialak murriztu beharrean, zerga eta lan arloko iruzurraren aurka irmo borrokatu.

Jose Ramón Chica: Jubilatzeke adina atzeratzearen kontrako mozioari erantzuteko idazkia.

Ezker Batuak aurkeztutako mozioa pentsioen sistema publikoa mantentzeko hartu diren neurriei EZEZKOA emateko arrazoiak justifikatzen saiatzen da, esanez langileen eskubideen aurkako erasoa dela, eskuineko politika eta ekonomiaren aurrean amara ematea dakarrela, beharrezkoa ez den proposamena dela, 30 urtetara begirako proiektiora mugatua dagoela, eta ez duela langabeziaren arazoa konpontzeko balio.

Azken hori da harrigarriena, erakusten baitigu Ezker Batuak pentsio publikoen sistema mantentzearen arazoarekiko daukan ikuspegi mugatua. Badirudi bakarrik lan merkatuaren erreformaren zati gisa ulertzen duela.

Langileen eskubideen aurkako eraso dela, eskuin politikari egiten zaion ekarpena dela eta une honetan beharrezkoa ez den proposamena dela aipatzen du eta horrek are eta argiago uzten du ikuspegi mugatu hori, izan ere, dirudienez, gaur egun funtzionatzen duen sistema bat badagoenez, zertarako hurrengoengatik arduratu! Zer axola zaigu hemendik 30 urtera ezin bada sistema publikoa mantendu. Horixe bai dela eskuineko politika eta ekonomiaren aurrean amore ematea, egin beharreko doikuntzak garaiz ez egitearen ondorioz langileek duten eskubide bat, hein batean enpresek ordaintzen dutena, desagerraraztea ekarriko duena, eta norberak bere baliabideei esker eduki ahal izango duen babes soziala bakarrik geratzea ekarriko duena, finantza espekulatuzaileen esku geldituz.

Eta, gainera, artikulua zehatz bati lotzen zaizkio, hain zuzen ere erretiroa hartzeko gehienezko adin berria mintzagai duenari, pentsio sistemaren erreforma sakonagoa dakarren erabaki politiko eta sozial bat zapuzteko.

Honaino moziolari egiten dizkiogun kritika. Hemendik aurrera mozia ez babesteko hainbat arrazoi:

Erreforma honen bidez pentsioen batez besteko kopuruak mantendu eta hobetu nahi dira, eta etorkizunean egon daitezela bermatu.

Ez dago erretiroa hartzeko adin bakar bat. 65 urte pertsona asko eta askorentzat eta 67 urte gutxiago kotizatzen dutenentzat.

Egia esateko, jubilatzeke adin tartea 61 urtetik 67 urte artekoa da, pertsona bakoitzak egindako kotizazioaren arabera, adin arrunta 65 urtekoa izaten jarraitzen duelarik.

Erretiro aurreratua 61 urtetan hartzea bermatzen da krisia dela eta lana galtzearen ondorioz.

Erretiro aurreratua hartzeko eskubidea zabaltzen da. Baita, lan nekagarri edo osasungaitzen kasuan, adina jaisteko koefizienteak baliatzea ere.

Seme-alabak zaintzeagatik hartutako eszedentzietan, jaiotza edo adopziogatik hartutako eszedentzietan, langileak ikasketak egiteko hartutako eszedentzietan-eta kotizazioaldiak errekonozitzen dira, eta horrek langile askok izaten dituzten kotizazio etenak zuzentzea ekarriko du.

Mozio hau baztertzeko arrazoi gehiago ematen jarrai nezake, baina gobernuak markatutako arrazonamenduak erabiltzeagatik kritikak jasotzen hasi aurretik, esan dezadan erreforma babesteko arrazoi horiek eta beste asko Toledoko Itunean parte hartu duten eragile sozialen hainbat agiritan daudela jasoak.

Aurreko horiek, hain zuzen, CCOOren dokumentuetatik daude atereak, mozia aurkeztu duen pertsonarengandik hurbil dagoen sindikatutik, alegia.

Beatriz Fernandino: CCOO eta UGT sindikatuek negoziatu dute hori, baina ni ere sindikatuek egindako negoziazioaren kontra nago. Kokoteraino nago hortik etor daitezkeen murrizketa guztiez,

pentsiodunak, jubilatua, zaharrak, gizarte zerbitzuak. Murrizketak egiteko modu asko daude, ken dezatela lehenik murrizketak egin dituztenen soldatetatik, jaitsi ditzatela beraien soldadak.

Juan Carlos Plazaola: ESKER BATUAK PENSIOEN ERREFORMAREN AURKA AURKEZTUTAKO MOZIOAREN AURREAN GOBERNU TALDEAREN BOZKA AZALPENA

Ezker Batuak aurkeztutako mozioarekin ados egon arren Gobernu Taldeak gauza pare bat zehaztu nahiko luke:

Gaurko arduradun instituzionalak, pentsamendu neoliberal bakarraren jarraitzaileak, ez daude prest krisira eraman gaituen politika ekonomiko eta sozial neoliberalaldatzeko. Horrenbestez, Ongizate estatuaren arrasto txikiena ere ezabatu nahi dute; gaur merkatu gehiago eta eskubide sozial gutxiagoren errezeta ezaguna planteatzen zaigu, gaur ezberdintasun sozialak areagotzea helburu duen merkatuaren aldarean sakrifikatzen dira hamarkadetako borrokei esker erdietsitako eskubide sozialak.

Gauzak horrela, madrildun instituzioetan nagusi diren indar politikoei, estatuan gehiengoa duten sindikatuen babesarekin, langile eta pertsona xumei eragingo digun azken hamarkadetako eskubide urraketa larriena burutu dute. CCOO eta UGTk espainiar gobernuarekin adostutako akordioaren harira egin dutena pentsio sistemaren murrizketa babestea baino haratago doa. Krisi honen baitan gobernuak hartu dituen erabakiak eta garatu dituen politikak babestu dituzte.

Madrilen hartutako erabaki hori, PP-UPN-PSOE-PNV-CCOO-UGT eta enpresarien elkarteak hartutakoa, hain zuzen, euskaldunoi eragiten digu ere. Eragiten digu euskaldunok gure erabakien jabe ez garela oraindik, gure gizarteak dituen erroka ekonomikoari erantzuteko subiranotasun ekonomikoa ez dugulako, hain justu ere. Hortaz, beharrezkotzat jotzen dugu gure subiranotasun ekonomikoa berreskuratzea, euskal herria ezkerretik eraikitzeke helburuarekin.

Bide horretan, aldaketa sozialak lortzeko aldaketa politikoak behar ditugu, programa neoliberalak kudeatzen duten arduradun instituzionalak aldatu behar dira, instituzioak aldaketa sozialaren zerbitzura jartzeko eta euskaldunok gure erabakien jabe egingo gaituen marko instituzional berria eraikitzeke.

Aukera asko eskaintzen dituen momentua bizi dugu Euskal Herrian, egoera politikoa aldatzeko aukerak sortu baititugu. Honen haritik, asko gara euskal herria ezkerretik eraiki nahi dugunak, elkar gaituzten eta baliatzen dituzten aukerak.

Juan Ignacio Arrieta: Atentzioa deitu dit Jose Ramonek irakurri duen pasarte horretan antza gobernuak hartu duen erabakiaren kontra dagoen oro, zure hitzetan, una estrechez de miras edo ikuspegi mugatua du ez; gomendatuko nizuke igandean Gara egunkarian egin zioten elkarrizketa Patxi Lopezek aholkulari batzordeko partaide batek.

Esandakoa kontuan hartuta, irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

* Aldeko botoak: 11 (Beitilarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and., Fernandino and, Arratibel jn eta Barrio jn.).

* Kontrako botoak: 3 (Chica jn., Morcillo and., Pérez jn).

* Abstentzioak: 3 (Amonarraiz jn., Cuesta jn eta Anglada and).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

- 1.- Udaltzaria txit gorenak erretiroa hartzeko adina 67 urtera luzatzearen aurka dago eta baita Espainiako Gobernuak onartu dituen pentsio-sistemaren gainerako aldaketa erregresiboen aurka ere.
- 2.- Hernaniko Udaltzaria desadostasun horren berri emango die Talde Parlamentarioei, eragile sozialei eta Gobernuari.
- 3.- Hernaniko Udaltzaria, halaber, babestu egingo ditu erretiroa hartzeko adina luzatzeko proposamenaren eta pentsio-sistemaren gainerako aldaketa erregresiboen aurka deitzen diren mobilizazioak, eta horietan.

14.- MARTXOAK 8. ADIERAZPENA. -

Krisi ekonomikoa nagusi den egunotan, enplegu eza da herritar askoren kezka. Halako krisi egoeratan gertatu ohi den bezala, oraingo honetan ere emakumezkoak dira ondorio latzenak jasaten dituztenak.

Horregatik beharrezkoa ikusten dugu emakumeak baztertu ditzakeen genero norabideak aurreikusi eta saihesteko pausoak ematea.

Era berean, jakinarazi nahi dugu egoera honen ondorioz, orain artean gairatzen saiatu garen eredu sozial patriarkal eta sexista berpizteko arriskua dagoela (gizon hornitzailea /emakume zaintzailea).

Beraz krisi egoera honetan hainbat eragile sozialek hartuko dituzten neurriek, gizon eta emakumeengan ondorio ezberdinak izango dituztenez, horiek guztiak hausnarketa sakon baten ondorioz hartu behar direla uste dugu, genero ikuspegitik izan ditzaketen ondorioak aztertuz.

Hau horrela izanda, ADIERAZTEN DUGU beharrezkoa dela emakumeen eta gizonen eskubide guztiak osotasunean egikaritzea bermatzea, eta honez gero gure artean dagoen desberdintasunezko arrakala gehiago ez zabaltzea.

Horretarako, orain inoiz baino gehiago, berdintasunaren aldeko tokiko politikak indartzeko KONPROMISOA HARTZEN DUGU. Geure gain hartzen dugu krisiak mahai gainean jarritako erronka, eredu berdina goetarako bidea egiteko aukera ematen baitu.

Halaber Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatuko diren ekintzetan parte hartzera GONBIDATZEN DITUGU herritarrek.

15.- SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAZ DEMOKRATIKOA (SEAD) ALDARRIKATU ZUTENAKO 35. URTEURRENA. ADIERAZPENA. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA SAHARAR ERREPUBLIKA ARABIAZ DEMOKRATIKOAREN ALDARRIKAPENAREN 35. URTEURRENAREN AURREAN

Hernaniko Udaltzaria, Otsailaren 27an Saharar Errepublika Arabiaz Demokratikoaren (SEAD) aldarrikapenaren 35. urteurren ospakizuna dela eta; Saharar gatazkaren inguruan gertatutakoak aztertuta; dagoeneko hiru hamarkada baino gehiagor luzatu den gatazkak, saharar herriak berezkoa duen erabaki askatasunaren eskubideaz baliatuz irtenbide baketsu eta behin betikoa lortu behar duela aintzat hartuta, honako **ADIERAZPEN hau aurkeztu eta onartzen du:**

Hernaniko Udaltzaria **BERRETSI** egin nahi du saharar herriak askatasunaren eta autodeterminazioaren alde duen borrokaren aldeko konpromisoa. Saharar herriak, Nazioarteko Zuzenbidean eta Nazio

Batuen eta nazioarteko hainbat erakunderen ebazpenetan ageri denez, bere etorkizuna erabakitzeko berezko eskubidea du; izan ere, lurralde hori oraindik ere konpondu gabe dagoen kolonizazio prozesu baten menpe egon da.

Hernaniko Udalak POLISARIO Frontea **ZORIONDU** nahi du —saharar herriaren legezko ordezkari bakarra— Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak onartutako 1754 eta 1783 ebazpenetan ezarritako negoziazio prozesuen bidez irtenbide zuzen, baketsu, demokratiko eta egonkor baterantz aurrera jotzeko duen konpromisoagatik. Negoziazio prozesu horri esker, Magrebeko eskualdean bakea eta egonkortasun politikoa lortzeko itxaropena mantendu da, baita herritarrentzat ongizate maila handiagoa lortzeko aukera ere, herritarrak baitira, azken finean, gatazkaren ondorioak jasaten ari direnak.

Hernaniko Udalak **ESKATU** nahi die Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluari, eta bereziki erakunde horren idazkari nagusi den Ban Ki-mooni, bai eta Mendebaldeko Saharako Ordezkari Pertsonala den Christopher Ross, Europako Batasunari eta bertako gobernuei ere: eskura dituzten baliabide demokratiko guztietaz baliatuz, Marokoko Gobernuari behar adina presio egin diezaiotela POLISARIO Frontearen antzera aktiboki, uste onez eta aurre-baldintzarik gabe 1754 eta 1783 ebazpenek ezarritako negoziazio prozesuetan parte har dezan, saharar herriaren autodeterminazio eskubidea bermatuko duen eta bi aldeentzat onargarria izango den irtenbide politiko batetara heldu ahal izateko.

Hernaniko Udalak Espainiako Gobernuari **ESKATZEN** dio—Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesuan erantzukizun historikoak eta juridikoak dituzenez gero, bai eta nazioarteko harremanetan indar handia ere— lan eraginkorragoa egin dezala, NBEren eta EBren baitan, saharar gatazkari irtenbide azkarra, bidezkoa eta iraunkorra lortzeko.

Hernaniko Udalak Marokok hartutako lurraldeetan saharar biztanleen giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak behin eta berriz urratzen direla **SALATU** nahi du. Saharar preso politiko eta gerra preso guztiak berehala askatzeko eskatzen du, baita gaur egun desagertuta dauden pertsonak non dauden argitzea ere.

Hernaniko Udalak Saharar preso politikoak **ZORIONDU** nahi ditu, eta Mendebaldeko Saharako herritarren giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen alde egindako borrokaren balioa aintzakotzat hartu nahi du.

Hernaniko Udalak **ESKAERA** hau egiten die errefuxiatuen bizi baldintzak babesten diharduten nazioarteko erakundeei (ACNUR, PAM): beharrezko ahalegin guztiak berehala egin ditzatela, aitzakiarik gabe, Tindoufeko saharar kanpamenduetan bizi diren errefuxiatu guztien bizi baldintza duinak bermatzeko. Horren haritik, ECHO giza laguntzarako europar bulegoari berariazko deia egin nahi dio, saharar herriaren aldeko lankidetzat programak etengabe areagotu ditzan.

Era berean, eta berriz ere, Europako gobernuei, bereziki Espainiako Gobernuari eta autonomia-erkidegoetakoiei, fondo bereziak bideratzeko eskatzen die, errefuxiatu sahararrak jasaten ari diren elikagai krisi izugarriari aurre egin ahal izateko. Erakunde batzuek ohiko laguntzak ematen dituzte lankidetzat proiektuetara, baina eskatzen ari garen ekarpen hauek ez liriateke dagoeneko bideratzen diren laguntzetatik kendu behar.

Hernaniko Udalak **ESKAERA** egiten die nazioarteko erakunde eskudunei, NBEko Segurtasun Kontseiluari eta Europako estatuetako gobernuei ozen eska diezaiotela Marokoko Gobernuari eta tartean egon daitezkeen enpresei Saharako Mendebaldeko baliabide naturalak bidegabeki miatzeari eta ustiatzeari uzteko. Izan ere, saharar herria da baliabide horien jabe bakarra, eta hari dagokio baliabide horien kontrola.

Adierazpen hau bidaliko zaie NBEko Idazkari Orokorra den Ban Ki-mooni; Nazio Batuetako Presidenteari; Europar Parlamentuko Presidenteari; Espainiako Gobernuko Presidenteari; SEAD-aren Gobernuko Presidenteari; EAEn SEADk duen ordezkariari eta, era berean, Estatu Espainolean duenari.

16.- "RUMBO A GAZA" EKIMENA. ADIERAZPENA. -

Rumbo a Gaza gizarte zibilean sortutako ekimena da eta haren helburua, Gazako biztanleriak bizi duen eguneroko egoera hurbiletik ezagutu eta salatzea da. Horretarako ekimen honek bi ontzi lortu nahi ditu, bertan 200 pertsona eta 2.000 tona laguntza sartu eta, Gazara iristean, UNRWari eman ahal izateko, banaketa berak kudea dezan. *Rumbo a Gaza* nazioarteko kanpaina, Palestina librearen aldeko borroka orokorraren barruan dago eta lurralde okupatuei beren subiranotasuna bueltan eman eta Palestinako herriaren eskubide politiko, ekonomiko, sozial eta horrenbestez, nazionalak berriro ere ezartzeko.

Rumbo a Gaza nazioarteko kanpainak segida ematen die iragan maiatzean Askatasunaren aldeko flotak abiarazi zituen ekimenei. Hura, blokeoa hautsi eta nazioarteko erkidegoaren jarrera salatzeke saioa izan zen eta eraso israeldarrak tragikoki deuseztatu zuen. Mavi Mamara itsasontzian izugarrizko hondamendia eragin zuten, bederatzi internazionalista hil zituztelarik.

Ekimen honen kezketako bat hurrek hezkuntza egokia izateko duten eskubidea bermatzea da. Hezkuntza epe luzeko inbertsioa da, gordeta dagoenean, biziak salbatu eta mantendu ahal ditu, gizarteari etorkizunerako esperantza eskaintzen dio eta gizartea berreskuratu eta erkidegoa garatzen laguntzen du.

2008ko abenduaren 27tik 2009ko urtarrilaren 18a arte Gaza israeldarren eraso militar suntsitzailearen menpean egon zen eta haren ondorioz 1.300 palestinar baino gehiagok bizia galdu zuten, haietako 300 baino gehiago zibilak zirela, eta milaka pertsona zauriturik geratu ziren. Palestinako milaka etxebizitza suntsitu egin ziren edo kalte handiak jasan zituzten; eta beste horrenbeste esan daiteke elektrizitate eta ur-hornidurari buruz. Israeldarren erasoek eraikin zibilak ere suntsitu zituzten, ospitaleak eta eskolak ere barne zirela.

Berun Urtua operazioaren ondorioak izugarriak izan ziren, blokeoak egoera ahulean zeukan hezkuntza sistemarentzat. Erasoetan zehar, 300 eskola eta haurtzaindegi baino gehiagok kalteak jasan zituzten eta haietako 18 guztiz suntsitu ziren. 16 unibertsitatek kalteak jaso zituzten eta 6 suntsitu egin ziren. Erasoetan zehar 164 ikasle eta 12 irakasle hil ziren eta beste 454 zauriturik geratu ziren. Eskola adineko hainbat hurrek familiako norbait galdu zuten edo etxea suntsiturik ikusi zuten, honek traumak eta antsietatea eragin dizkielarik.

Hezkuntza gatazka eta ezegonkortasun politiko eta ekonomikoaren lehendabiziko biktimetako bat da, batzuetan ikasle-irakasleak edo azpiegiturak zuzeneko helburu bihurtzen direlako eta bestetan ekonomia eta administrazio-jarduera eten egiten delako. Hezkuntzarako bidea, beraz, ezinezkoa edo ezin zailagoa izaten da halakoetan.

Zenbakiak emanda, Gazako biztanleriaren erdia baino gehiago (%53), 18 urte baino gazteagoa da (Palestinako Estatistika Bulegoa 2009). Esan nahi baita, biztanleriaren erdiak bere hezkuntza-sistema behar duela.

Orain dela bost urte Gazako blokeoa hasi zenetik, Palestinako milaka ikasle ezin izan dira eskola-zentroetara joan ez Zisjordanian eta ez atzerrian ere. Eta zutik dirauten eskoletan eskolako material guztiak falta dira.

Gaur Israelek Gazako ikasleei irteera debekatzen die eta horrela hezkuntza-garapen osoa galarazten. 40.000 ikaslek ezin dute hezkuntzarik jaso. 100 eskola eraiki behar dira, baina blokeoak galarazi egiten du eraikuntzarako materiala sartzea (UNRWA, 2010eko iraila).

Naturak eragin ez duen hondamendi krudelaren aurrean gaude eta haur eta gazteen belaunaldi oso bat muturreko ahulezia-egoeran dago haren ondorioz. Ez dute defentsarik ez babesik, oinarritzko euren eskubide bati dagokionez... hezkuntzarako eskubideari dagokionez, alegia.

Israelek Palestinako lurralde okupatuetako haurren egoerari buruzko informazioak ematen ez badu ere, Gazako txikien eguneroko errealitateak erakusten digunez, Haurren Eskubideen Hitzarmenean agertzen diren haurren eskubideak ez dira betetzen, eskubide horiek, hitzarmena sinatu zuten estatuentzat, legea diren arren.

Alderdi diren estatuak 28 eta 29. artikuluetan hezkuntzarako eskubidea aitortzen dute eta hezkuntza gaietako nazioarteko lankidetzak sustatu eta bultzatuko dutela diote, ezjakintasuna eta analfabetismoa mundu osoan desagerrarazten laguntzeko eta ezaguera tekniko eta irakaskuntzako metodo modernoak ezagutzea errazteko. Honi dagokionez, estatu sinatzaileek bereziki kontuan hartuko dituzte garapen-bidean dauden herrien premiak eta beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte, eskolako diziplina adingabearen giza duintasuna aintzat harturik eta Hitzarmenarekin bat etorritik gauza dadin lortzeko.

Nazio Batuen ikerketa-batzordeak eman zuen txostenak esan zuenez, erasoan gerrako krimenak egin ziren, gizadiaren kaltean, Nazioarteko Zuzenbideko hainbat hitzarmen hautsirik.

Gazako mugak guztiz itxirik daude gaur ere eta, ondorioz, lurralde palestinarren berreraiki, hornitu eta garatzeko posibilitateak ezer ezean geratzen dira. Lurralde okupatuetako giza eskubideen egoerari buruzko Nazio batuen errelatore bereziak adierazi duenez, blokeoak berreraikitzerako materialak sartzea galarazten du. Era berean, energia-horniduran dauden murrizketak eta honek dakartzan ondorio ekonomiko larriak salatu ditu, baita gaur egun blokeoaren aurrean biziak salbatzeko balio duen tunel sarea deuseztatzeko lurrazpiko horma eraikitzekeo politika ere.

Nazioarteko organismoak eta estatuak, giza eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbidea betearazteko gauza ez direnean, pertsonak bakarrik eskatu ahal diegu gure gobernariari betearazten irmoki saia daitezela, legea defendatu eta betearaz dezaten, eskubide hauek haustea ez dadin zigorrik gabe gera eta populaziorik ahulenei babesa izan dezaten.

Nazioarteko erkidegoak eman duen erantzun ahularen aurrean, Hernaniko Kooperazio Taldeak, udal honek irmoki jarrera hartzea eta giza eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbidea betearazteari ekitea exijitzen dugu.

Horago azaldutakoagatik, Hernaniko Udalak honako hau erabaki du aho batez:

Gazako blokeoa gaitzestea eta berehala eta betiko deuseztatzeko eskatzea.

- 25 zaku zementu erostea, Rumbo a Gaza ekimenaren bidez Gazako zerrendara eraman eta han UNRWARI emateko; horrela, 2008-2009 urteetan Berun Urtua operazioan suntsitu ziren eskola, unibertsitate eta haurtzaindegia berreraiki ahalko dira.

- Rumbo a Gaza kanpainari laguntzeko 5 tsas miliatarako bono erostea. Bono hauen helburua, ontziak erosi eta nabigatzeko eta bidaiari gertatzen direnak kanpora jakinarazteko etab. behar duten guztiaz hornitzea da. Bono hau erosten denean, antolakuntzak erosleari aitorten sinbolikoa egingo dio, ontziek Gaza hiriraino egin behar dituzten milietako baten jabe sinbolikotzat izendatuz.

- "Koaderno bat, lapitz bat eta euro bat" kanpainari atxikitzea. Kanpaina honen helburua Gazako zerrendako haurrei oinarrizko eskola materiala ematea da. Horretarako, kanpaina honen zabalkuntza udalerriko eskola guztietan erraztuko da, eskola kontseiluaren bitartez, erraztu ere, eta 100 euro jarriko ditu koadernoak eta lapitzak erosteko. Hauek Rumbro a Gaza ekimenak eramango ditu eta UNRWAr eman, honek bana ditzan.

- Hernaniko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Espainiako Gobernuko Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez, adierazpen hau Israelgo instituzio eskudunei jakinaraz diezaion; instituzio hauei dei egiten die, hartutako konpromisoak bete ditzaten, Palestinako herriaren giza eskubideak urra ez ditzaten eta flotaren segurtasuna berma dezaten.

- Hernaniko Udalak akordio honen berri komunikabideei jakinaraziko die.

17.- MOZIOA: ABIADURA HANDIKO TRENA ETA HERNANI. - Abiadura Handiko Trenaren proiektua, gaur egun arte gure herrian planteaturiko azpiegituren handiena da, eraikitzeko behar duen diru kopuruagatik (milaka milioi Euro) nahiz bere dimentsio eta ondorioengatik.

AHT-ren proiektuak, Euskal Herriaren etorkizun ekonomikoa nahiz lurralde antolaketa baldintzatuko ditu eta biztanleri guztiari eragingo dio, jendarte osoak egin beharko dio aurre bere finantzaketari eta zeharkaturiko herri eta hiriak bere garapena larriki baldintzatuta edukiko lukete, ingurumenean, nekazaritzan eta abeltzaintzan izango lituzkeen ondorioez gain.

Azpiegitura honek, gure ustez, ez die euskal jendarteak dituen beharrei erantzuten, ez bere etorkizun ekonomiko, ez garraio arazoak konpontzeko, komunikazioak errazteko azpiegitura bat izan beharrean, bertako nahiz kanpoko elite ekonomikoen interesei erantzuten dion azpiegitura bat besterik ez da; AHT-ak gure herri eta hiriak bere artean isolatu, urrutiko garraio bideen aldeko apustua egin eta gehiengoak behar duen hurbileko tren-zerbitzua baztertuz.

AHT-ren proiektua garatzeko orduan, ez informaziorik ez eta parte hartzeko biderik ez da izaten ari. AHT-a bultzatzen ari duten erakundeak, jendarte osoa, herritarrak, herri, kontzeju eta hiriak bazter batera utzita jarduten ari da; jokabide hau inposaketaraino eramaten ari delarik.

Honen guztiaren adibide garbia da Hernanin aurreikusitako subestazio elektrikoak; izan ere, oraindik proiektuak agertzen ez bada ere, derrigorrezko desjabetze espedientearen baitan jaso dago eta, beraz, egitasmoarekin lotuta dauden lursailen afekzioetan ere bai. Gainera, kontuan hartu beharrezkoa da subestazio horrek ingurunean izango duen eragina: 10 ha inguruko azalera da eta, Hernaniko herritarren osasunean eragin larriak izango ditu, ingurunean eragin handia duten Hernaniko beste instalazio batzuk bezala (papelera, kimika...).

Derrigorrezko desjabetze espedientearen haritik jarraituz, 2010eko urriaren 26ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (259 zk.) Gobernuak Gipuzkoan duen Azpiordezkaritzak emandako ebazpenaren iragarkia argitaratu zen. Ebazpen horren bidez eskatu zen has zedila "Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren Plataforma Eraikitzeko Egitasmoa. Gipuzkoako Lurralde Historikoa. Zatia: Urnieta-Hernani" deitutako lanak egin ahal izateko hartu behar diren lursailak Derrigorrezko Desjabetzeko Espedientea.

Prozedura honi dagokionez, ebidentziak daude aditzera ematen dutenak ageriko irregulartasunak egin direla eragindako lursailen mugaketan, lursail horien titulartasunetan, inpaktuan, aldi baterako nahiz behin betikoan, eta eragindako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan. Horrez gain, ez dago inolako aurreikuspenik afektatuta dauden lursail etako iturburu eta akuiferoetan proiektuak izango duen eraginari buruz.

Proiektuaren Gipuzkoako eta Arabako beste zati batzutan gertatu izan dena kontuan hartuta eta goian azaldutakoak kontuan hartuta, komenigarria izango litzateke Derrigorrezko Desjabetzapenari buruzko Legeak eragindako lursailak hartu aurretik egin beharreko aktak egin beharreko lekuari buruz ezartzen duena betetzea.

Esandakoa kontuan hartuta, irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

* Aldeko botoak: 13 (Beitilarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and., Fernandino and, Amonarraiz jn., Cuesta jn, Arratibel jn eta Barrio jn.).

* Kontrako botoak: Bat ere ez.

* Abstentzioak: 4 (Chica jn., Morcillo and., Pérez jn, eta Anglada and).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Honengatik guztiarengatik udal honek:

1.- Abiadura Handiko Trenari EZ esaten dio, EZ esaten dion bezala bere eskutik datorren Subestazio elektrikoari. Izan ere, proiektu txikitzaile eta herritarren beharretan ez oinarritzeaz gain, diru publikoen erabilera interes pribatuen arabera egiten delako, noiz eta inoiz baino beharrezkoagoak direnean politika sozialen sustapena.

2.- Ematen ari den defizit demokratikoa zuzendu arte, hau da, herrien eta herritarren parte hartzeko duten eskubidea bermatu artean, proiektuaren paralizazioa eskatzen du.

3.- Herritarrek eztabaida honetan parte hartzeko duten eskubideari, informazioa eskuratzeko eskubideari, iritzi ezberdinak entzuteko eskubideari, eztabaida publikoari eta erabakiak hartzeko eskubideari, BAI esaten dio, eta horixe eskatzen du: gardentasuna, informazioa, eztabaida eta herritarren erabakitzeke eskubidea bermatzea, azpiegitura hau egitearen edo ez egitearen erabakia zuzenki har dezaten.

4.- Bide horretan udal honek eskuetan duen edo lortuko duen informazio guztia herritarrei helaraziko die. Eztabaida eta parte hartzea sustatzeko ezinbesteko elementua kontsideratzen baitugu. Udal honek; herritarren parte hartzea, eztabaida sortzea, herritarrei hitza ematea edota proiektu honen aurkako iritziei ateak zabaltzeko helburua duten ekimenak babestuko ditu.

5.- Era berean proiektu honen tramitazioan ematen ari diren eta eman daitezkeen irregulartasunen aurrean Udalak bere esku dauden neurriak hartuko ditu irregulartasun horien aurka egiteko.

6.- Udal honek proiektu honekiko bere posizionamendu politikoaren erakusle "AHT gelditu" ikurra jarriko du udal balkoian.

7.- Udal honek mozio hau bideratuko du komunikabideei.

18.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

19.- UDAL ERAIKINAK GARBITZEKO KONTRATUA LUZATZEA. - Udal eraikinak garbitzeko Hernaniko Udalak eta Eulen, SA enpresak 2006ko abenduaren 28an izenpetutako kontratu administratiboa, luzapena barne, 2010eko abenduaren 28an amaitu zen. Udalbatzak 2006ko abenduaren 21ean esleitu zion kontratua aipatutako enpresari eta behin baino gehiagotan luzatu da.

Kontuan hartu da 2010eko azaroaren 25eko Udalbatzak hartutako erabakia. Erabaki horren bidez, Hernaniko Udalak eta Eulen, SA enpresak izenpetutako kontratua luzatu zen aipatutako zerbitzuaren kontratazio-espeditentea amaitu arte, hau da, gutxi gorabehera 2011ko martxora arte.

Kontuan hartu dira alkatearen proposamena eta udal aparejadorearen txostena. Proposamen eta txosten horien xedea da zerbitzu hori eta kiroldegia garbitzeko zerbitzua batera kontratatzea dirua aurrezteko.

Kontuan hartu da kontratazio-teknikariaren txostena. Teknikariaren ustez, komenigarria da udal eraikinak garbitzeko zerbitzua eta kiroldegia garbitzeko zerbitzua batera kontratatzea. Azken zerbitzu hori 2011ko abuztuaren 31 arte egongo da indarrean.

Aztertu da Zerbitzu Publiko, Merkataritza eta Turismo batzordeak 2011ko otsailaren 23an emandako irizpena.

Hau erabaki da:

Eulen, SA kontratistarekin adostu ondoren, kontratua luzatzea –egungo baldintzetan eta harik eta aipatutako zerbitzuaren kontratazio-espeditente berria amaitu arte– Hernaniko Udal Kirol Patronatuaren garbiketa zerbitzuarekin batera, gutxi gorabehera 2011ko iraila arte.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 18:25 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu dut.